

TOKIKOM

2010eko urtarrila | 89. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

Ateak
zabalduz

Argazkia: Alberto Casina

MAIALEN LUJANBIO | JORGE DUEÑAS | ZAE ZAMUDIOKO ARGAZKI TALDEA

TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR



Larrabetzuko Herri Ikastetxea

Tel.: 941 558 172

Fax: 941 558 172



Zamudioko Herri Ikastetxea

Tel.: 941 520 826

Fax: 941 521 349



"Jauri" Herri Ikastetxea

Tel.: 941 543 250

Fax: 944 543 262



"Gernika" Herri Ikastetxea

Herri Ikastetxea (Gernika)

Tel.: 944 541 090

Fax: 941 541 090



Derioko Herri Ikastetxea

Tel.: 941 541 246

Fax: 941 541 246




Leizor Herri Ikastetxea

Tel.: 944 55 119

Fax: 944 555 163





UNAI UGALDE
(Irakaslea)

Lerro hauek idazteko orduan, hiru hila-bete pasatxo dira tren istripu latza izan zela Txorierrin. Hildako bat (trenaren gidaria bera) eta hiru zauritu eragin zituen, eta informazio epizentro bihurtu ginen egun batez Euskal Herrian (eta inguruko atzerrietan). Horrelakoetan gertatu ohi den legez, leku guztietatik etorri zitzaizkigun erreakzioak. Herritarrengandik, ustekabearen harridura, sinetsi ezinik etxe ondoan halakorik suertatu zitekeenik. Agintarien-

Ez nazatela aitzakiatzat erabili

gandik, bestalde, neurriak hartzeko eskakizunak entzun genituen, aurrerantzean antzeko gertaerarik izan ez dezagun.

Ezin ahaztu, ordea, samina sakonen sentitu zutenena. Hildakoaren hurkoena. Familiakoena bai, jakina; baina bere lankideena ere bai. Horiek horrela, zoritxarreko egunean bertan, beharginen ordezkari sindikalak batzartu ziren, eta biharamunean egunbeteko lanuztea deitzea erabaki zuten, "Eusko-trenen lan istripu gehiagorik ez" goiburupean.

Gaueko azken albistegietan izan genuen horren guztiaren berri gehienok. AIKOR! gurea ere fin ibili zen, kronika osatu osatua sareratu zuen-eta www.aikor.com-en. Agerikoa zen beharginen animoen egoera; bereziki, esango nuke trenaz baliatzen garenok ondo ulertu genuela, egun batez, bestelako garraiobideren bat topatu beharra. Nik neuk, lineako autobusa hartu nuen Bilbora joan-etorria egiteko, beste barik.

Baina, erreakzioetara bueltatuz, Eusko-trenen goi-arduradunen iritziz, lanuzteak legezkotasuna urratzen zuen. Atoan, zigor-espeditentea agindu zuten langile-batzordeko kideentzat. Orintsu jakin dira behin-behineko ondorioak: samurrenak, hilabetez enplegu eta soldata barik; gordinenak, hiru urtez kategoria galtzea. Bestalde, ikerketa zorrotza egiteko konpromisoa ere agertu zuten, baina honetaz ezer gutxi jakin da harrezkeroztik, modu ofizialean behintzat.

Ez dakit auziak noranzko bidea hartuko duen; urtarilaren 19an epaiketa egin da lanuztearen harira, baina ale hau itxi orduko ez dugu emaitzaren berririk izan. Edozelan ere, Eusko-trenen erabiltzailea naizen alde-tik, eskakizun xume bat. Ez nazatela aitzakia modura erabili, herrikide batzuk zigortzeko, atsekabearen gordinean planto egitea ebartzi zutelako, zertarako eta heriotza tragiko baten aurrean, dagokion dolua adierazteko eta "aski da!" ozenki esateko.

Beherapenekin burua galdu

Urtearen errutinak jota betiko martxan hasi dugu sasoi berria. Inongo ezus-tekorik gabe izkinaren bueltan aurkitu genuen urtarila; eta berarekin batera zorioneko beherapenak. Kola luzeak, gangak eta pizti ugari; gehiegi, agian.


Hala ere, aurtan produktu berezia dago mugako beherapenetan: erlazio pertsonalak. Punta puntako teknologiek aurrera egiten duten heinean, honen esentziak gogorki egiten du beherantz. Divorce-Online abokatu langelak adierazi duenez, *Facebookek* dibortzioa eragiten du. Hainbat bezerok, antza, senar-emazteak harrapatu dituzte sarean beste pertsona batzuekin hizketan edota zibersexua izaten. Sinplea da: profila egiten



EDER MERINO
(Kazetaria)

duzu, beste pertsonekin hizketan gustura eta lasaitasunez hasten zara, eta konturatu orduko epaitegian zaude zure bikotearen salaketa duzula esku artean. Kontuz.

Aurreko astean giza sare honen funtsa zein zen galdetu zidan lankide batek eta, egia esan, kontaktu ludikoaz gain, ez nuen erantzunik aurkitu. Bide elektronikoak gero eta maizago erabiltzen ditugu eguneroko gauzak egiteko, zuzeneko komunikazioa albo batera utziz. Pantailek eta teklaturek xurgatu gaituzte, beharrezkoak beti? Beherapenen zulo itogarrian galtzen garen bitartean, ez litzateke gauza makala betiko baloreak berreskuratzeko hausnarketa burutzea.





Bildumarik onena: Eva Fernández

Argazki onenak saritu dituzte Derion



Argazkirik onena: Javier Ferreras

DAT Derioko Argazki Taldeak Argazki Txapelketaren sariak banatu ditu. Txapelketa seigarren aldiz egin dute, eta irabazleak hauek izan dira: bildumarik onena, Eva Fernández; argazkirik onena, Javier Ferreras; eta derioztarreko ateratako argazkirik onena, María Fernández.

Eskualde

Txapelketaren finalak

Urrian hasiera eman zitzaion Lezamako Eskualde Txapelketari. Torneoa 51. aldiz egin da aurten. Lehen mailan 16 bikotek hartu dute parte, eta beste 16 bikotek, promesa mailan. Txapelketaren finalak otsailaren 5ean jokatu dira, arrastiko 8etan, herriko pilotalekuan. Partidak grabatu egingo dira eta zapa-tu arrastiz emango dituzte ETB1etik. Antolatzaileek esandakoaren arabera, pilotarien maila oso altua izan da txapelketa osoan, eta pilotalekuan joko ederra ikusteko aukera izan da. "Gazteak ondo ibili dira eta oso maila ona erakutsi dute; Gipuzkoa eta Nafarroako pilotari gazteek, batez ere".

Altzariak batzeko

zerbitzua, Sondikan

Sondikako Udalak altzari eta tresna zaharrak batzeko etxeko zerbitzua jarri du abian. Altzariak eguaztenetan bilduko dira; eguaztena jaieguna bada, martitzenetan egingo da bilketa. Zerbitzuaz baliatzeko, 94 453 50 10 telefono zenbakira deitu behar da, eta udal langileak etxetik pasatuko dira tresnak batzera.

Zerbitzuak edozein altzari mota biltzen ditu: sofak, ateak, etxetresna elektrikoak, kutxak edo jostailuak, banaka batzuk aipatzearren. Etxebizitza bakoitzeko, gehienez, hiru tresna batuko dira astean.

ASESORÍA
Luz Fernández Aguirre, S.L.

Melky B. Gómez, S.L.
Tfn: 94 472 22 16 - fax: 94 471 01 18
48700 SONTXA (Bizkaia)

LIRERIE SONDIKO LIRURUOTXA

ARTE ENERGIK ESKULANAK E.A.

JOSUE MARTÍNEZ I ANNE JIMÉNEZ

Enbatazko lezioak, irakurketak, proiektuak, diseinua, materialak, instalazioak eta mantentzeak.

Artalea 2. - Tel: 945 34 153 - 34 177
48100 SONTXA (Bizkaia)

GAMINIZ JATETXEA

945 34 1772
www.gaminizjateketa.com

Enbatazko 3D irudiak, irudiak, proiektuak, diseinua, instalazioak eta mantentzeak.

www.gaminiz.com

Hamaika aukera mozorroa janzteko

Aurreko urteetan bezala, Inauteriak jai-gogorekin datozkigu aurten: kontzertuak, lehiaketak, desfileak, ikuskizunak, txokolatadak... Aldizkaria itxi orduko, ekitaldi hauek batu ditugu. Hala ere, egon adi, ziur asko datozen egunotan beste gehiago antolatuko dira-eta. Mozorroa jantzi eta ez galdu aukerarik!



Argazkiak: Jon Goikouria

Loiu

Otsailaren 12an, barikuan

18:30: *Txanogorritxo rock* eta txitxi-buruntzia, frontoian.

Derio

Otsailaren 12an, barikuan

18:00: Dantzak, musika eta txokolatada, frontoian.

Zamudio

Otsailaren 13an, zapatuan

17:30: Xigorki Lehiaketa, Adintsuen Etxean.

18:45: Erromeria.

Lezama

Otsailaren 13an, zapatuan

19:00: Artista Lehiaketa, umeen dantzak...

21:00: Herri-afaria.

22:30: Mozorro Lehiaketa, saloi dantzak, sari-banaketa eta diskoteka.

Otsailaren 15ean, astelehenean

18:00: Txokolatada eta filma, ludotekan.

Larrabetzu

Otsailaren 12an, barikuan

Goizean: Inauteriak, eskolan.

Arratsaldean: Hainbat ekitaldi, kiroldegian eta kaletik zehar.

17:00: Haurrentzako berbena.



inauteriak
Jaiak eta ospakizunak
Astelehenean

Informazioa: www.inauteriak.com
Telefonoa: 941 402 000
Faxa: 941 402 001
E-mail: inauteriak@inauteriak.com
E-mail: informazioa@inauteriak.com
www.inauteriak.com



luz zamudio
Kontzertuak, ikuskizunak, txokolatadak...
www.luzzamudio.com

Informazioa: www.inauteriak.com
IRIGO BARDENA
Txokolatada
www.inauteriak.com
Informazioa: www.inauteriak.com
E-mail: informazioa@inauteriak.com
Faxa: 941 402 001






Sondika

Otsailaren 19an, barikuan

20:00: Txupinazoa.
23:00: Bertako taldeen emanaldia.
00:30: Kontzertua: Betagarri.
02:30: Amaiur.
05:30: Disko-festa.
07:00: Azken tragoa.

Otsailaren 20an, zapatuan

11:30: Umeentzako jolas-parkea
12:00: Poteoa, txistulariekin.
18:30: Umeen kalejira.
19:00: Txokolatada.
19:45: Umeen moztorro eta xigorkien sari-banaketa.
20:30: Kalejira, Goloka taldearen eskutik.
21:30: Sardinaren hilketa; denok afaltzera.
00:00: Erromeria, Luhartz taldearekin.
02:00: Moztorroen sari-banaketa.
02:30: Erromeriaren jarraipena.
05:00: Disko-festa.

Kepa Sangroniz elkarteak aurkeztu da



Kepak sei urte zituela joan zitzai-gun; duela urtebete. Derioko mutikoak haurren zeroid olipofusinosi neuronal berankorra gaixotasuna zuen. Gaixotasun genetikoa da hori eta nerbio sistema zentralari egiten dio kalte. Gaixoen bizi-itxaropena oso laburra da. Gainera, oso gaitza arraroa da eta ez du osabiderik. Estatuan hiru kasu baino ez dira ezagutu: Kepa bera, horren arreba eta beste ume bat, Toledokoa.

Lagunek Kepa Sangroniz elkarteak sortu dute, gurasoei eta arrebari babesa eta laguntza emateko. Elkarteak jendaurrean aurkeztu dute urtarrilean.

Ekitaldian gaixotasunari buruzko xehetasunak azaldu dituzte, eta gaur egun martxan dauden tratamendu esperimentalen berri eman dute. Era berean, elkartearen nondik norakoak jakinarazi dituzte eta www.kepasangroniz.org webgunea aurkeztu dute. Besteak beste, gaixotasun arraroei buruzko informazioa eta bloga daude bertan. Webgunearen bitartez ere badago aukera elkartearekin kontaktuan jarri eta laguntza emateko. Elkarteak hiru esparru zehaztu ditu familiari laguntzeko: diru-ekarpenak, laguntza emozionala eta eragin handiko kontaktuak.

Sagardotegira irteera, Loiu

Larrakoetxe Loiuo jai-batzordeak irteera antolatu du Aburuza sagardotegira otsailaren 20rako. Sagardotegia Adunan dago. Loitutik goizeko 9etan aterako dira, eta gosaria Irrintzi Billabonako elkartearen egingo dute. Bazkaria eguerdiko 3etan izango da Aburuza sagardotegian, eta itzulia gaueko 10etan egingo dute. Trikitiak girotuko du eguna. Irteeran parte hartu nahi dutenek otsailaren 1etik 12ra bitartean eman behar dute izena, Zabaloetxeko eskola zaharrean. Ekimenak 65 euro balio du pertsona bakoitzeko.



Txistu ikastaroa, Lezaman

Gurutze Lezamako dantza taldeak hainbat ekitalditan hartzen du parte urte osoan. Ekitaldi horietan txistulariak ere egotea nahi du taldeak, eta horretarako txistu ikastaroa antolatu du. Ikastaroa bost urtetik gorako umeentzat da. Izena emateko epea urtarrilean amaitu da; hala ere, baten batek interesa badu ikastaroa egiteko, otsailean ere izango du izena emateko aukera. Interesatuak liburutegira edo dantza taldera jo beharko dute.

Jaialdi ederra, AIKOR!ren urteurrena ospatzeko

AIKOR! aldizkariak zortzi urte bete ditu. Urteurrenaren haritik, jaialdia egingo da urtarrilaren 29an, Teknologia-Parkeko Barko Eraikinean. Besteak beste, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreek eta Astrapala Lezamako musika taldeak hartuko dute parte ekitaldian. Horrezaz gainera, Baserri Antzokia proiektuaren berri emango du TOTOANek Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioak. Jaialdian

eskualde eta inguruko elkarteak, aikor!lagunak, euskaltzaleak, irakurleak eta udal ordezkariak batuko dira.



LarrabetzuKOrridoreak izateari utzi zionekoa


Joan den abenduan 30 urte bete ziren Larrabetzuko lehen bariantea egiteko baimena eman zenetik. Izan ere, orain soilik oinezkoentzat den Andra Mari kalea, aspaldian eta denbora luzez (100 urte baino gehiago), kamino bakarra zen kotoxeek zein kamioiek eta trailerrek Txorierri zeharkatzeko. Kale nagusia izanik, arazo eta istripu ugari sortzen ziren egun batean bai eta bestean ere bai, hori bide bakarra baitzen bertako umeak, helduak eta nagusiak eskolara eta plazara joateko, edo herritik ibili ahal izateko. Orduan semafororik ere ez zegoen, eta kale estu horretatik mota guztietako ibilgailuak pilatzen ziren sarri askotan. Denbora luzez ez atzera eta ez aurrera egoten ziren, herria behin eta berriz asaldatzen.

Beste bide bat egiteko beharrezina aurreikusi zen, baina lanak ez ziren inoiz hasten, Udalak ere hala eskatu arren. 1975. urtean, Herri Elkartasunak, hango familien elkarteak, trafikoa desbideratzeko komisia sortu zuen, arazoari konponbidea emateko asmoz. Eta baita lortu ere. Bizilagunek antolatu zituzten hainbat batzar eta ekintzei esker, besteak beste, banan-banan eta txandaka egiten ziren trafiko kopuruaren neurketak.

Otsailaren 11tik 26ra bitartean, arratsaldeko lauetatik zortzietara, era-

kusketa egingo da Anguleri Larrabetzuko Kultur Etxean, eta bertan aukera izango dugu prozesu honi buruzko informazio, argazki eta bitxikeria ugari ezagutzeko. Han izango dugu herriko lagunaren gora-behera eta lorpenen berri; bost urte luzez elkarlanean egindako lanaren emaitza.

Korridorearen aldeko plataforma





Liliak loradendak Erakusleihen Txapelketa irabazi du

Danerik Paraje! Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako Elkartek Erakusleihen Txapelketa antolatu zuen abenduan, laugarren aldiz. Txapelketan elkartekideak diren 20 komertziok hartu dute parte, eta herritarrek erakusleihorik politena aukeratu dute. Deioztarren ustez, Gabonei begira ederren apaindutako erakusleihoa Liliak loradendakoa izan da. Estanko Perea bigarrena lotu da; eta Ane eta Soraya ile-apaindegiak, hirugarrena eta laugarrena hurrenez hurren. Horrezaz gainera, aipatu behar da Ane ile-apaindegiak Merkataritza Ganberako Lehiaketa ere irabazi duela, Derio kategorian.

Elkartek lau diru-txartel zozketatu ditu bozketan parte hartu dituzten herritarren artean. Orotara 400 euro banatu dira, eta saridunak hauek izan dira: Lourdes Nuñez, Gloria Garrido, Pilar Santin eta Adela Jimenez. Saritzat jasotako dirua herriko komertzioetan gastatuko dute.

Kontsumo jardunaldiak, Larrabetzun

Gurpide Larrabetzuko ekoizle eta kontsumitzaileen elkarteak Kontsumo jardunaldiak antolatu ditu lehenengo aldiz. Ekitaldiok urtarrilaren 28tik 31era bitartean egingo dira.

Paul Nicholson EHNEko kideak eta Mikel Kormensana Nerbioi Kontsumo Taldearen kideak "Elikatzeko burujabetza" hitzaldia eskainiko dute urtarrilaren 28an. Saioa arratsaldeko 7:30ean izango da Anguleri Kultura Etxean.

Urtarrilaren 29an, *La paella global* zine-foruma egongo da arratsaldeko 7:30ean, Anguleri Kultura Etxean, eta hilaren 31n ibilbide laburra egingo dute Larrabetzutik. Hitzordua goizeko 10etan jarri dute, plazan. Handik herriko baserritarrei bisita egitera abiatuko dira, eta hamaiketakoa Elizalde Txokoan hartuko dute. Beste alde batetik, otsaileko lehenengo



Paul Nicholson

asteazkenean zehar Larrabetzuko baserrien inguruko erakusketa egingo da Anguleri Kultura Etxean.

XEKEZ
Idazte Zerbitzuak S.L.

Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...
Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...
Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...

Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...
Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...
Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...

J. ELKORRAGA
Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...
Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...
Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...


Poluketa
Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...
Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...
Idazte Zerbitzuak S.L. idazte, argitaratu, argitaratu eta argitaratu...

Lapurreta, Larrabetzuko estankoa

Susto ederra hartu dute Larrabetzuko estankoa urtarilaren 23an. Goizaldeko 5:30ak ziren, eta senarra egunkariak antolatzen zebilen. Estankora lau lagun hurbildu ziren, "eta kristalezko atea mailu batekin apurtu zuten", azaldu digu alabak. Barrura sartu eta gizonari lurrean etzateko esan zioten. "Ezten batekin mehatxatu zuten eta dirua non zegoen galdeztu zioten". Alaba eta ama goiko pisuan zeuden eta zaratak izutu zituen. Behera jaitsi eta Ertzaintzari deituko ziotela esan zieten lapurrei. Lapurrok alde egin zuten eta polizia handik gutxira ailegatu zen. "Hamar minutu baino ez ziren izan, baina oso gogorrak. Kaxa bi tabako eraman dute: 1.000 euro baino gehiago". Neskak azaldu duen moduan, lapurrek gaztelaraz hitz egiten zuten eta, bere ustez, hemengoak ziren.

Haitirekiko elkartasuna

Tragediak gogor jo du Amerikako herririk txiroena. Urtarrilean lurrikara bi egon dira Haitin. Orain arte jakinarazitako datuen arabera, 75.000 lagun hil dira eta milioi eta erdi pertsonak galdu dute etxea. Etsipena eta kaosa nagusi dira Haitin, eta laguntza humanitaria oza-ozta ailegatzeko zaie bertakoei. Haitiren aldeko ongintzazko festibala antolatu dute Derion otsailaren 19rako. Ekitaldia arratsaldeko 8:30etatik aurrera izango da Gurea Aretoan. Sarrerek 10 euro balio dute eta otsailaren 8tik aurrera jarriko dira salgai Udal Etxebizitza eta Informazio Bulegoan. Datozen egunotan datu gehiago jakinaraziko dira ekitaldiari buruz. Beste alde batetik, Zamudioko udaletxean kutxa bat jarri dute, herritarrek diru-ekarpenak bertan uzteko.




D bitamina, seme-alaben heziketa aberasteko

Txorierriko Mankomunitateak *D bitamina*. Aberastu bere heziketa! kanpaina hartu du parte, Bizkaiko beste 23 udalerrirekin eta mankomunitate birekin batera. Umeak eskolan lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoei dago zuzenduta kanpaina hori, eta D ereduak dituen abantailak jakinaraztea du helburu: umeari indartu egiten dio hirugarren edo laugarren



hizkuntza ikasteko gaitasuna; eta beste eredu batzuetan ikasteak baino etekin handiagoa eta emaitza hobeak dakartza, besteak beste. Txorierri bi urtetik hiru bitarteko 471 ume daude eta Euskara Zerbitzuak gutun bana bidali die haien gurasoei, kanpainaren berri emateko. Matrikulatzeko epea otsailaren 1etik 12ra bitartean zabalduko da.





Eskola berria

“Sondikako eskola orain dela gutxi handitu dute, ikasleen kopuruak gora egin duelako. Eraikin berriaren linea garbiek ondo ematen dute iluntzeko argi bereziarekin”.

Argazkia: Igor García (Sondika Goiri argazki elkarte)

Libururik handienak ikasleentzako bidaiak-jokatzeko
erabiltzeko erabiltzen diren libururik handienak
ikasturteak hasi eta irabazten dira:

**Egin zaitez
aikor!**

Zelan?

—Joanita Zorrotza (Zorrotza) / Zorrotza
—Alberto García (Sondika) / Zorrotza
—Yolanda Lizarri (Sondika) / Zorrotza
—Joanita Zorrotza (Zorrotza) / Zorrotza

Libururik handienak ikasleentzako bidaiak-jokatzeko
erabiltzeko erabiltzen diren libururik handienak
ikasturteak hasi eta irabazten dira.

“Momentu ederra da bertsoarako”

MAIALEN LUJANBIO | bertsolaria



2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazteaz gainera, Maialen Lujanbio txapela lortu duen lehenengo emakumea da. Garaipenak sortutako interes handia apur bat baretu ostean, bere bertsoen zorroztasun eta sakontasunez gozatzeko aukera izan dugu Larrabetzuko Hori Baien, Gabon Egunean. Baita zorionak emateko aukera ere.

t: I.M. / a: Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Zelan ematen dizu txapelak?

Txapeldun izateak erresaka luzea eta digestio motela izango dituela pentsatzen dut. Momentuz, lasai nago; pozik eta lasai. Uste dut denbora pasatu ahala hobeto jabetuko naizela gertatu denaz.

Zerbait aldatu da plazan, zugan?

Ez da gauza askorik aldatzen. Gure jardun nagusia astebururoko plazaz plaza-koa da eta halaxe izaten segituko du. Jendeak, noski, oso gogoan du oraindik txapelketa eta hori giroaren beroan sumatzen da. Momentu ederra da bertsoarako.

Elkarrizketa batean entzun dizugu

ez zarela txapela lortu duen lehenengo emakumea bezala sentitzen, txapela lortu duen bertsolari bat bezala baizik. Hala ere, ezin da ukatu zure garaipena oso inportantea izan dela emakume askorentzat...

Sinbolikoki garrantzitsua dela uste dut. Emakume bat txapeldun izan ahal izateak, alde batetik, esan nahi du jendeak onartu dugula emakume bat bertsotan aritzea eta ona izatea; eta bestetik, errekonozimendu moduko bat da gure aurretik bidea urratu zutenentzat. Garrantzitsua da gaur egun neska-mutikoak direnek erreferente bat izango dutelako, eta emakume-bertso lotura naturalki bizi izango dutelako.

Garaipena zurea ez ezik belaunaldi oso batena ere izan dela esan duzu. Zergatik? Zelango ekarpena egin diozue bertsolaritzari?

Gure belaunaldia talde bezala plaza-ratu zen. Gazte taldea ginen orduan, eta gaur egun bertsogintzaren motor nagusia garela uste dut. Bere bertsokeraz eta, bertsolari bezala, bere funtzioaz gogoeta etengabea egiten duen belaunaldia da. Hori da, nire ustez, gure ekarpena.

Eta belaunaldi horretako emakumeek, zehatz-mehatz?

Emakumeok bidea egiten gabilta, gure aurretik beste emakume batzuek ireki zutenaren atzetik: Arantzazu Loidi, Kristina Madaras... Gero eta emakume gehiago dabil plazan, eta kopuru horrek aniztasuna ere adierazi nahi du. Hori garrantzitsua da; erreferenteak izatea, eta erreferente ezberdinak. Bestalde, zenbait gairen trataeran aldaketatxoak ari dira gertatzen; orain arte aipatu gabe egon diren zenbait gai azaltzen hasi dira...

Bertsolaritza belaunaldi ezberdinek elkarri ulertzeko bidea dela entzun dizugu...

Bertsolaritzan gizartearen arlo gutxitan bezala ematen da belaunaldien arteko komunikazioa: elkarri entzun eta erantzun, elkarren hitza eta iritzia kontuan hartu eta baloratu, bakoitzaren ikuspegia errespetatu... Uste dut eredu ona litzatekeela gizartera esportatzeko.

Andoni Egañari hartu diozu aurrea...

Aurrea hartu baino, erreleboa hartu esango nuke nik. Naturala da belaunaldiz belaunaldi ardurak eta sinboloak gaurko-tzen eta eskualdatzen joatea. Modu natu-ralean bizi izan dugula esango nuke; bai berak, bai nik.

2001. urtean txapeldunordea izan zinen, arantzarik kendu duzu, beharba-da?

Arantza ez zen izan; nire bertso ibilbi-deko momenturik indartsuena eta inpor-tanteenetakoa baizik. Orain lortu dudan txapela eskailera maila bat igotzea izan da, 2001. urtetik.

Zelango ondarea utzi du Egañak, zure ustez?

Egaña ez dezagun erretiratu; txapelke-ta utzi arren, bere ondarea sortzen eta partekatzen jarraituko du. Alde askotatik da maisua: bertso teknikan, ironian, hiz-kuntzan, bertsolari bezala duen jarreran, gertutasunean, bertsokideak zaintzeko duen arretan...

Bertsolaritza bizirik dagoela argi gelditu zen BECen. Txapelketaren fina-la 14.500 lagunek jarraitu zuten areto-an bertan; eta beste horrenbestek, tele-bistatik...

Ondo egindako lanaren emaitza da: bertso eskolak; bertsolaritza, hezkuntzan; Bertsozale Elkartea; hedabideetan egin-dako lana... Horri eutsi behar diogu. Ber-tsolaritzaren arrakasta ez da hutsa, ez da ikuskizun munduaren su artifizial bat; edukia eta mamia, funtsa du barruan. Horri eutsiko diogu; arrakastak gorabehe-ra eta kopuruak kopuru, bertsolaritza


*“Txapeldun izateak
erresaka luzea eta
digestio motela izango
dituela pentsatzen dut”*

*“Bertsolaritzaren
arrakasta ez da ez da
ikuskizun munduaren
su artifizial bat;
edukia eta mamia,
funtsa du barruan”*

biziarazten eta geroratzen ari gara.

Hamalau urte zenituela hasi zinen bertsolaritzan; orain 33 urte eta txapel bat duzu. Zelango bilakaera izan du Maialenek urte hauetan?

Bidea nire sentazioen, iritzien eta grina artistikoen arabera joan naiz egiten. Pertsona bezala izandako bilakaera isla-tzen da bertsotan ere; eta noski, 14 urtetik 33 urtera arte badago aldea. Bertsotan nire ahotik kantatzen saiatzen naiz, iner-tziatik ihes egiten, gauzei buruz pentsa-tzen, esamoldeak eta doinuak lantzen... Hori da azken batean denok egiten dugu-na, bakoitza bere maneran.



“Primeran pasatu dugu”

Patxi Suarez eta Uxue Zarraga txorierritarrek Euskadiko saskibaloia selekzioarekin jokatu dute eta elbarrituentzako Estatuko txapelketa irabazi dute gazte mailan

t/a: Gaizka Eguskiza

Atleta trebeak ditugu Euskal Herrian, bai horixe! Kirol mota guztietan, emakumezkoak, gizonezkoak... Dominak eta tituluak lortzen dituzte normalean. Batzuetan oihartzun itzela dute garaipenek, baina beste batzuetan, aldiz, komunikabideok ez diegu merezi duten beste hedapena ematen. Horrela gertatu da duela gutxi: gazte mailako elbarrituen saskibaloia Euskadiko selekzioak Estatuko Txapelketa irabazi zuen urtarilean, Zaragozan. Eta talde honetan txorierritar bi ditugu: Patxi Suarez larrabetzuarra eta Uxue Zarraga Erandiogokoa.

Guztira, bost taldek hartu zuten parte txapelketan: Madril, Gaztela eta Leon, Katalunia, Aragoi eta Euskadi. “Lehenengo hiru partidak parekatuak izan ziren hasieran, baina azkenean emaitza argia lortu genuen. Finalean, berriz, oreka mantendu zen partida osoan zehar eta azkenean 14-18 irabazi genion Aragoiri”, esan digu Patxi. Larrabetzuarrak 10 urte dauzka eta poz-pozik dabil. Ez da harritzekoa, horrelako txapelketa batera joaten den lehenengo aldia izan baita, eta gainera, zer eta urrezko domina ekarri du etxera. “Primeran pasatu dut: Euskadiko selekzioarekin joan naiz, kanpoin jokatu dugu, irabazi egin dugu...”

Uxue Patxi baino lotsatia goa da. Neskak 14 urte dauzka, eta DBHko bigarren mailan dabil ikasten. “Ilusio osoz joan ginen Zaragozara, eta bertan apur bat urduri ibili ginen. Ez genuen ezer egiteko denborarik izan. Goizez entrenatzera joan, eta arra-



tsaldeetan partidak jokatzen genituen”. Taldeko emakumezko bakarra da Uxue, eta neska gehiagok parte hartzea gustatuko litzaioke. Hala ere, ez da kexatu. “Mutilek ondo tratatu naute, nahiz eta batzuetan txantxak-eta egin. Dena dela, giro polita dago taldean eta primeran pasatu dut”.

Umeekin batera guraso batzuk joan ziren Zaragozara harmailetatik seme-alabak animatzera. Txapelketa lortu eta gero, gazteak zein gurasoak pozik agertu dira. “Kirola da, baina honek aukera paregabea ematen die gazteei: kanpora joan, lagunekin ibili, beste jokalaririk batzuekin bizi...”, esan dute Iñakik eta Begoñak, Patxiaren aita eta Uxueren ama, hurrenez hurren. Hala ere, alde txarrak ere izan ditu txapelketak, Iñakiren ustez. “Finalera ez zen agintaririk etorri. Gainera, txapelketan euskal selekzio-

ko talde “arruntak” ere hartu zuen parte, baina hau eta elbarrituena hotel ezberdinetan egon ziren Zaragozan”. Elbarrituen kirolaren egunerokotasunera zabaldu du kritika Begoñak. “Erakunde publikoek ezberdin jokatzen dute. Esate baterako, elbarrituen arropa askoz txarragoa da, eta egundoko arazoak daude non jokatu topatzeko”.

Bilbao BSR

Patxi eta Uxueren kirol-ibilbideak antzekoak dira. Biak hasi ziren multideportea egiten eta hortik saskibaloian jokatze-ari ekin zioten Bilbao BSR taldean. “Saltoa itzela izan da: duela gutxi multideportea egiten nuen eskolan; gero saskibaloian hasi nintzen jokatzen; eta amen batean Euskadiko selekzioaren kamiseta janzteko aukera izan dut. Bertan 16-20 urteko neska-mutilekin entrenatu eta jokatu dut... Harrigarria da”, dio Patxi. Gazte larrabetzuarrari aitarengandik datorkio zaletasuna eta berarekin jokatzen du. “Momentuz aita ni baino hobea da (kar, kar)”. Lehen Larrabetzun bertan egiten zuten, baina Udalak saskiak kendu dituzenez, Deriora joan behar izaten dute.



Kirol gogorra da saskibaloia jokari elbarrituentzat. "Kolpeak eta kolpeak hartzen dituzu; saskibaloia arruntetan kolperen bat dagoenean falta da, baina gurean ez" esan digu Patxik. Horregatik, aulkiak bereziak dira. "Aulkiak ez iraultzeko sistema dago, babesgarriak daude inguruan, eta gupilak okertuta ezartzen dira. Era berean, jesarlekuaren bizkaraldea baxuagoa da, mugikortasuna areagotzeko".



Oguzo
Kore Kikon
Manofo da Ingancin
Amfani
 Bincike da kuma aiki
 Farko da ke gaba
 (Kuma aiki)
 Kuma aiki da kuma
 Kuma aiki da kuma
 Kuma aiki da kuma
 Kuma aiki da kuma

Conanengandik Dalirengana

Jesús Romero "Txolo" larrabetzuarrak pintura erakusketa egin du Anguleri Jauregian urtarrilaren 15etik 29ra

t/a: Gaizka Eguskiza

Hugo Sotil peruarra futbolaria izan zen 1970eko hamarkadan. Aurrelari tre-bea izan zen, eta FC Bartzelonan jokatu zuen. Hegoamerikakoak "Cholo" zuen ezizena eta honen omenez "Txolo" esaten hasi zitzaion Jesús Romero larrabetzuarrari. Jesúsék ere futboleko jokatzeko zuten gaztetan, baina kirolaz gain beste zaletasun bat hasi zen lantzen garai hartan: marrazkiak egitea. Gehienek "Txolo" esaten diote gaur egun, honek futboleko jokatzeari utzi dion arren. Hala ere, oraindik marrazkiak eta margolanak egiten ditu, eta horietako batzuk ikusgai izan ditugu Larrabetzuko Anguleri Jauregian urtarrilaren 15etik 29ra bitartean.


"Nire koinata Araceli animatu ninduen erakusketa egitera. Nire laguntzaile onena da, baita nire kritikaririk zorrotzena ere". Ardura berezia izan du "Txolok" "non eta Larrabetzun" margolanak erakusteagatik. "Apu bat urduri ibili naiz. Erakusketa beste herriren baten egin bagenu, ez nintzatekeen hain urduri ibiliko. Hala ere, konfiantza handia dut nire lanean. Niretzat erronka polita izan da herrian bertan pinturak ikusgai jarri izana eta, era berean, hemengo bizilagunek nire lana ezagutzeko aukera izan dute".

"Txolo"k esan digu pintura arloan ez

duela teknikarik, mundu honetan heziketarik ere ez duelako. Ezta nahi ere. "Ikasle txarra izan naiz beti, eta ez dut uste pintura eskolak jasango nituenik. Dena dela, azkar ikasteko gauza naiz eta ikasteko grina izugarria dut, baina beste era batean: liburuak irakurtzen, erakusketetara joaten... Niri begietatik sartzen zaizkit gauza berriak". Edonola ere, argi dago "Txolo"k baduela estiloa. "Barrutik ateratzen zaidana margotzen dut, ez dakit ondo ala txarto dagoen, baina horrela sortzen zait eta kito! Margolan bakoitza erronka bat da niretzat, eta ustekabez beteta dago".

Larrabetzuko margolari honek erretratuak lantzen ditu batez ere. Guztira, 500dik gora margolan pintatu ditu. Bere ezagutzerik eza alde batera utzita, pasioz eta beldurrik gabe ekiten dio margotzeari. "Erretratuak erakarri behar nau hasiera-hasieratik. Adituek esaten dute erretra-

"Barrutik ateratzen zaidana margotzen dut, ez dakit ondo ala txarto dagoen, baina horrela sortzen zait"



tuak ezkerretatik eskuinaldera marraztu behar direla, baina nik begietatik hasteko beharra dut. Izan ere, begietan dago edozein pertsonaren sena. Eta begiak gustatzen bazaizkit, jarraitu egiten dut gainontzeko aurpegiaren osagarriak marrazten".

Jesús ez da oraindik bere sormenari askatasun osoa ematera ausartu, eta margolan famatu edo argazkien kopiak baino ez ditu egiten. Besteak beste Munch, Manet, Murillo, Dalí, Modigliani eta Van Goghen lanak margotu ditu, eta normalean bere "ikutua" ematen dio lan bakoitzari, kolorea edo trazuren bat aldatuz, esate baterako. "Klasikotzat" jotzen du bere burua pinturari dagokionez, baina kolorea jorrazteko orduan "garaikideagoa" dela uste du. Etorkizunari begira, irudi handi-handiak landu nahi ditu. "Euskal Herria maite dut, baina oraindik ez dut






jakin sentimendu hori bideratzen. Horren inguruan datozen hilabeteotan egingo dut lan, agian”.



Bilakera

“Marrazkirako zaletasun itzela adierazi dut betidanik: eskolan margotzen nuen. Normalean ez zizkidaten nota onak jartzen, baina nire lagunek nik egindako marrazkiak irakasleei aurkezten zizkietean, eurek bai, bikainak lortzen zituzten. Ume bihurria izan nintzen (kar, kar)...”. Gaztetan, Conanen komikiak irakurtzen zituen eta irudiak kopiatzen hasi zen. Marrazkiak zuri beltzez egiten zituen. Kolorerik gabeko joera horri jarraipena eman zion “Txolok”, baina komikiak utzi eta erretratuak lantzeari ekin zion duela 10 urte. Azkenengo aurrerapausoa iaz eman zuen: 2009ko otsailean akrilikoz

margotzen hasi zen. “Nire kabuz ikasi dudanez, dena da berria niretzat, esperimentatzen ari naiz behin eta berriro. Eta margolanak egiten ditudan heinean, bila-kaera nabarmena dago”.


Hainbat ogibidetan ibili da Jesús gazte-gaztea izan zenetik: zangak egin, ardoa banatu... Gaur egun, ordea, egurra enbaltzeko enpresa baten jabea da beste bazkide batekin. Zehazteke dagoen arnas eritasun batek jota dabil “Txolo”, eta horregatik denbora luzea eman behar du etxean. Aisialdia pintatzen ematen du. “Cholo” Sotilen karrera goiz amaitu zen futbolari honek zuen edaterako zaletasuna zela-eta. Gure “Txolo”, ordea, hasiberria da pintura munduan, eta bere ametsa margolanetatik “bizi izatea” da, eta koadro batzuk saltzea lortzen badu, pozaren pozez ibiliko da, ziur asko.



Urte amaiera baino lehenago Txorierriko Baserri Antzokia eregiten hasteko asmoa dago

Kafe Antzokiak kultura eta aisialdirako guneak dira, herri eta eskualde askotan aspaldidanik martxan dagozan proiektuak. Txorierri be laster eukiko dau bat, baina gurea bereziagoa izango da, kafea baino baserria izango dalako. Baserri Antzokiaren proiektua TOTOANek, Mankomundadearen parte-hartzeagaz, jarri dau abian, eta eskualdeko zein inguruko euskaltzaleen topagune bihurtzea dau helburu.

Euskera eta euskal kulturaren gunea



AM
Mankomundadea
Mankomundadea

11. urteurrenaren ospakizuna
11. urteurrenaren ospakizuna
11. urteurrenaren ospakizuna

11. urteurrenaren ospakizuna
11. urteurrenaren ospakizuna
11. urteurrenaren ospakizuna

SAN ISIDRO

11. urteurrenaren ospakizuna
11. urteurrenaren ospakizuna
11. urteurrenaren ospakizuna

11. urteurrenaren ospakizuna
11. urteurrenaren ospakizuna
11. urteurrenaren ospakizuna

multiprecio
Rakel

11. urteurrenaren ospakizuna
11. urteurrenaren ospakizuna
11. urteurrenaren ospakizuna

Baserri Antzokia TOTOAN Txorierriko Euskera Alkarteen Federazioan barruan orain dala hiru urte sortu zan proiektua da. Euskerea eta euskal kultura ardaztat dituan topagunea gure bailaran eregitea bideragarria ez eze beharrezkoa be bada, egitasmoaren arduradunen ustetan. Izan be, gurean, moeta honetako giro euskalduneko gunerik ez dago gaur egun, eta gazteek be ez dabe nora joan asteburuetan. Ganera, Baserri Antzokia erreferentziatzeko topaleku bihurtu ahal da bertoko eta inguruko euskaltzaleentzat, Federazioak dauan indarra kontuan hartzen bada. "Euskera eta euskal kultura sustetako instituzinoek Irakaskuntzan eta erakunde ofizialetan egindako beharrari segida emonez, iniziatiba pribaduek, euskera alkarreke eta hainbat euskaltzalek ekin eutsan gainerako esparruak euskalduntzeari, eta honegaz batera euskal guneak sortarazoteari: Bilboko Kafe Antzokia, Ondarroakoa, Donostiakoa...", azaldu dabe. "Toki horreetan legeaz Txorierrin be, euskerearen erabilerea bermatu eta herri zein eskualde guztiak dituan erroak eta sustraiak ahalik eta ondoen mantentzeko, derrigorrezkotzat jotzen da euskal guneak sortzea bakotxaren bizilekuaren inguruan. Osterantzean, gune honeen faltak uri handietara joatea dakar; eta horregaz batera, herrietako jentearen deserrotzea eta bertako kultura galtzea".

Baserri Antzokia taberna-jatetxe-antzoki tankera dauan azpiegitura izango da, eta Derion, Seminario atzean, kokatuko da. Kultura eta enpresa proiektu mo-



"Taberna-jatetxe-antzoki tankera dauan azpiegitura da eta Derion, Seminario atzean, kokatuko da"

duan jaio da eta handik ateraten diran irabaziak euskal kulturaren inbertituko dira. Euskal kultura modu zabalean ulertuta, Baserri Antzokian euskeraz egiten diran ekintza guztiek eukiko dabelako lekua: kontzertuak, antzezlanak, erakusketak, bilerak, kirola, erakustaldiak, ospakizunak, txapelketak...

Beste herri batzuetako egitasmoak alderatzen badogu, hainbat berezitasun izango ditu. Horreetako bat itxurea da. Industriadak soloari aurrera egin badeutso be, Txorierrin nekazal eskualdea da izatez eta

baserria dau nortasun-zeinu. Horregaitik ez da kasualidadea proiektuaren arduradunek eredu hau aukeratu izana eraikinare diseinurako. Kultura egitarauari jago-konez be, beste Kafe Antzokiek eskaini ezin dabezan ekitaldiak eta baliabideak eskaini ahal izango ditu. "Barruko instalazioetatik aparte, eraikinak kanpoan be eukiko ditu azpiegiturak. Horri esker, barruko zein kanpoko ekintzak antolatzeak aukerea egongo da. Esate baterako, jentea barruko jantokian bazkaltzen dagoan bitartean, harri-jasotzaileen edo aizkolarien erakustaldiak antolatu daitezke kanpoan. Edo bertsolarien, dantzarien... emandak".

Harreman sozialetarako gunea

Besteak beste, Baserri Antzokiak helburu honek ditu: Txorierrin euskal giroa biztea, kultur ekintza euskaldunak bultzatzea, euskal alkarre eta euskaltzale guztien indarrak batzea eta euskerearen



Hästens dena den
Guztizko antzokiak
nortasunak

ARTEAGA koltxoi-denda
Derion Seminario • 94 454 51 47 • berru

Eraikin jasangarria

Baserri Antzokia urte amaiera baino lehenago eregiten hasteko asmoa dago, eta, danak aurreikuspenen arabera urten ezker, datorren urte amaierarako egongo da amaituta. Egitasmoaren sustatzaileek jakin badakie txorierritar bakotxari eraikina bere herrian altzetea gustauko litxakiola, baina, hainbat aukera aztertu ostean, Derio horretarako herririk egokiena dala erabagi dabe. "Alde batetik, Txorierriko "uriburutzat" jotzen dalako; eta bestetik, oso ondo dagoalako komunikautu. Ganera, proiektuak garatzen dabilz komunikazioak hobetzeko, eta denporeagaz guk garraio-sistema propioa eskaintzea be posible izan daiteke". Era berean, Derioko Udalak erraztasunak emon zituan

eraikina bertan altzetako.



Baserri Antzokia 5.400 metro karrautuko konplexua izango da. Eraikinak solairu bi eukiko ditu: beheko solairuan eszenatokia, barra, pista eta jan-tokia atonduko dira; eta lehenengo solairuan gela batzuk egongo dira, han euskal kulturaren inguruko ekimenak susteteko. Kanpoaldean parkinga, zelaia eta txoko bi eregiko dira, besteak beste; txokoak enpresek zein kultura eta kirol alkarteek erabili ahalko dabez.

Txorierriko Baserri Antzokia proiektu aitzindaria izango da, eta energia barriztagarrien alde egingo dau. Halan, eguzki-energia baliatzeaz ganera, geotermia energia-sistema erabiliko da berokuntzarako.

erabilera sendotzea eta areagotzea. Horretarako, kalidade handiko ostalaritza, dibulgazioa eta kultur zerbitzuak emongo dituan gunea jarriko da martxan. "Eskualdean, giro euskaldunean harreman sozialak susteteko zentroa izatea gura dogu. Ildo horretatik, arreta berezia jarriko da gazteengan, eurentzako giro euskalduneko topaleku bihurtu daiten".

Edozelan be, Baserri Antzokiak txorierritarrei ez eze bertora behar egitera datozanei be eskainiko deutsez zerbitzuak. Eraikina Teknologia Parkeko lurretan altzauko da, eta horrek beste jardueraren eremu bat ekarriko deutso proiektuari: enpresak. Teknologia Parkean zein albo-ko industrigunetan milaka lagunak egiten dabe behar, eta, era berean, asko be badira, behar kontuak dirala-eta, Txorierriaino hurbiltzen diran atzerritarrak. "Euskal kulturea sentidu zabalean eza-gutzeko aukerea emongo deutsegu, eta, ahal dogun neurrian, euskerea eta euskal kulturearen inguruan dabezan beharrak aseten ahaleginduko gara. Beraz, beste edozein agertoki baino askoz zabalagoa izango da gurea".


Lehenengo sektorea jarduera nagusia izan zan urteetan zehar Txorierriin, eta harek be lekua eukiko dau azpiegitura barrian. Halan, dastatze-salmentarako txoko bat zabalduko da, bisitariek zein bertokoek ezagutu daiezan Txorierriin ekoizten diran nekazaritza-produktuak. Ganera, bertoko produktu horreek me-nuak egiteko orduan be erabiliko dira. "Nekazaritzak presentzia indartsua euki



Bizian
Fisioterapia
& Osteopatía

Erribilla: Solina Asplaza
1. floor - 1. floor - 1. floor
Muelo 1. floor - 1. floor - 1. floor
1. floor - 1. floor - 1. floor

Zamakoia 11. behe
420000 1. floor - 1. floor
Tel: 944 562 278
Eskualde tel: 944 498 577
www.bizian.es



bentitu zeure
gorputzean
buntza kalitatea



dau gurean orain dala gitxi arte, eta ha mantendu gura geunke, galdu ez daiten". Sektore honi bultzada berezia emongo bajako be, ez da Baserri Antzokian erakusleihoa eukiko dauan bakarra. Bigarren sektoreko enpresek be euren eskaintza teknologikoa aurkeztu ahalko dabez bertan.

Zabala eta plurala

Baserri Antzokiaren proiektua aurrera eroateko, komisino bat eratu zan TOTOA-Nen barruan eta egitasmoa Txorierriko Mankomunidadeari aurkeztu eutsien. Mankomunidadeak begi onez hartu dau proiektua hasiera-hasieratik eta prest azaldu da alkarteari laguntzea eta babesa emoteko. Hausnarketa luze baten ondorioz, Baserri Antzokia Fundazioa sortzea erabagi zan. "Formula hau aukeratu genduan, abantaila handiak dakarzalako: ekimen pribaduak, publikoak eta enpreseta-koak buztartu daitezke eta gure helburu

nagusia dana –euskerea eta euskal kultura bultzatzea- bermatu eta blindau egiten dau, batzuk aitatzearren". Fundazioaren patronatua TOTOAnek eta Mankomunidadeak osatzen dabe, baina aukerea be badago han enpresen ordezkari bi sartzeko. "Patronatu egitura honek bermatu egiten ditu guztien parte-hartzea, egituraren zabaltasuna eta pluraltasuna, kontuen gardentasuna eta helburuekiko atxikimendua".



Izan be, proiektu zabala izatea gura dabe sustatzaileek, ideologia politiko bakoa eta euskalduntasuna ardatz bakarra dauana. Hori dala-eta, gura dauan guztiak hartu daike parte bertan bere ideakaz, beharragaz edo diru-ekarpenagaz. Sentidu horretan, finantziatzino bide ez-bardinak zabalduko dira. "Proiektu errentagarria izatea gura dogu, eta euskal kultura eta aisia bultzatzeak bertoko merkataritza bultzatzeak dakarzan onura berberak ekarten dituala erakustea".

*"Euskeraz egiten diran
ekintza guztiek eukiko
dabe lekua bertan"*

*"Txorierritarrei eta
inguruko euskaltzaleei
ez eze eskualdeko
enpresetako langileei
be emongo deutse
zerbitzua"*

*"Lehenengo
sektorearen eta
teknologiaren
erakusleihoa
be izango da"*

*"Proiektu zabala da,
ideologia politiko bakoa
eta euskalduntasuna
ardatz bakarra dauana"*





“2012ko Olinpiada dugu helburu”

JORGE DUEÑAS | Emakumezkoen Espainiako eskubaloia selekzioaren entrenatzailea

t: Gaizka Eguskiza / a: J.D.

Zelan Munduko Txapelketan?

Laugarren postuan amaitu dugu, emaitza ederra, Espainiak bere ibilbidean lortu duen onena. Lehenengo fasean Afrika eta Asiako talde ezezagun batzuen kontra aritu ginen. Primeran jokatu genuen eta taldea finalerdietara ailegatu zen. Patxadaz heldu ginen hara, lasaiegi agian. Euforia handiegi hori kaltegarria izan zen guretzat Frantziaren kontrako partidari, finalerdian. Izan ere, kaskar ibili ginen defentsan, eta ez genion geure mailari eutsi. Partida horretan ez ezik, 3. eta 4. postua erabakitzeko partidari ere galdu egin genuen. Dominarik lortu ez dugunez, badijadi lana ez dela hain ona izan, baina poz-pozik egon behar dugu.

Eta finalerdian?

Oso ondo ezagutzen dugu elkar Frantziak eta guk. Guk gabeziak ditugu; kanpoko jaurtiketari dagokionez, batez ere. Horrek baldintzatzen du gure jokoa,

Jorge Dueñasen (Bilbo, 1962) izena ez da ezaguna, eskubaloia ez delako entzute handiko kirola. Baina Sondikan bizi den entrenatzaile hau, besteak beste, Arrate eta Zuazo taldeetan ibili da. Gaur egun, Emakumezkoen Espainiako selekzioaren arduraduna da, eta haren eskutik taldea inoiz baino emaitza hobeak ari da lortzen: iaz Europako txapelketa izan zen, eta abenduan laugarren postuan lotu zen Munduko Txapelketan.

eta horregatik baloia azkar mugitu behar dugu, eta pibota ere funtsezkoa da. Frantziak ondo defendatu zuen eta irabazi egin zigun.

Iaz txapelketa izan zineten Europako Txapelketan. Horrek presioa eragin du ala akuilutzat hartu duzue hobeto aritzeko?

Hasiera batean kaltegarria izan zen, emaitzak onak direnean, anbizioa galtzen duzulako. Hala ere, taldeak gogor egin zuen lan txapelketan, eta badakigu, geure mailari eusten badiogu, edonori aurre egiteko gauza garetia. Munduko txapelketan agerian utzi dugu Europako txapelketan lortu duguna ez dela kasualitatea izan. Gaur egun, begirunea digute gainontzeko taldeek.

Zein da talde honen indarra?

Taldea bera. Harreman ona dute jokalariek euren artean, eta batasun hori lagungarria da une larriak gainditzeko. Gainera, kalitate handiko jokalariek ditugu. Jokalarien maila ona ez bada, entre-

*"Gaur egun begirunea
digute Europako
eskubaloit talderik
indartsuenek"*

natzaileek ezin dute ezer egin. Guk taldea finkatzea lortu dugu. Baina horretarako jokalariek lan egiteko gogoia eta inplikazioa erakutsi behar dituzte.

Nolako egutegia duzu etorkizunari begira?

2012ko Joku Olinpiarrek ditugu helburu. Lehenago, aurren, Danimarkan eta Norwegian Europako Txapelketa jokatuko dugu; eta 2011n, Brasilen Munduko Txapelketa. Txapelketa bi horietan ahalik eta ondoen ibili behar dugu Joku Olinpiarretarako txartela lortu ahal izateko, eta Londresera sasoi onean heltzeko. Eskubaloian Olinpiar Jokoak dira hitzordu nagusia. Ez dira irabazteko zailenak, baina osperik handiena ematen dutenak, bai.

“Poz-pozik bizi naiz Sondikan”

Esकुबालोकि Eतलतुकु लेकु बलतलकु
बलतरल एरलन दु Jुरुकु Duefias बललु-
तलरुल, बलनल गलुरु एगुन Sनुदलकल बललु दल.
Bलरु एमलतुल बलरुतुकुल दल ँतल Tलुरुलरलरल
बललु ललतलरुल ँतलरुल बलरु ललन सुनल Jुरुकु.



“Hirikumetzat” jotzen du bere burua. Izan ere, Bilbo, Madril edo Valladolid bezalako hirietan bizi izan da. Ez da harritzekoa, beraz, hasierak gogorrak izatea Sondikan. “Hala ere, denboraren poderioz egokitu egin naiz eta gaur egun poz-pozik bizi naiz hemen. Sondika leku erosoa eta segurua da, batez ere umeentzat”.

Izugarri gustatzen zaio Jorgeri kirola. Hori dela-eta, eskubaloi jokalarri ohia eta entrenatzailea izateaz gain, Soin Hezkuntza ikasi zuen. "Jokalaria nintzela, behe mailetakoko taldeak entrenatu nituen eta, erretiratu nintzenean, jarraitu egin nuen behar honetan". Neskak zein mutilak entrenatu ditu bilbotarrak, baina berdin dio: "Mutilak neskak baino azkarragoak eta indartsuagoak dira, baina teknika aldetik parekoak dira. Taldearekiko harremana ere antzekoa da, garrantzitsuena lan egiteko gogoia baita".



Traxion

WAS AN AMERICAN COMPANY
AS OF 2004

Capo Reginaldo Munoz
CEO / TRAXION

Markus Gubler
CEO / TRAXION

TRAXION WAS THE FIRST FOREIGN COMPANY TO
OBTAIN A U.S. PATENT IN THE U.S. MARKET


[illegible][illegible]

MARMOIRAZINHA
GOYO
SOMMELIERE ESPECIALIZADA EM VINHOS

Endereço: Rua 111 e 112
11100-000, São João del-Rei, MG
Fones: (31) 3333-3333 / 3333-3333




MINISTERUL ÎNȘĂȚĂȚII ȘI ȘTIINȚEI
ROMÂNIA



Gabonetako postalak


a: Eneritz Larrañaga eta Gaizka Eguskiza

Urteberriarekin batera, bete-betean harrapatu gaitu neguak; eta hotza ez ezik, elurra ere mara-mara erori da bailaran. Elurra korapilatsua da batzuentzat; eta, beste batzuentzat, ordea, dibertigarria. Hala edo nola, eguneroko lekuetan irudi ezberdina ikusteko aukera ematen digu estaldura berriak. Horren lekuko hainbat argazki ditugu; hona hemen adibide batzuk.



URRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK

Txoriarri etorbidea, 25
48180 Leiu
(Ollaren auzoa)
944 539 232
www.ekma.es



Zer dago gaur bazkaltzeko?

Behargintza Txorierrik bazkaria etxera eramateko zerbitzua jarri du abian. Programa pilotu honetan, zortzi lagun dabilta prestakuntza hartzen gastronomia arloan, eta zerbitzua 20 nagusiri ematen zaie.



t/a: Itxaso Marina

Behargintzak eta Gizarte Zerbitzuek duela hiru urte egindako bileratik hau atera zuten ondorio: Txorierriko populazioa zahartzen zihoan eta horrek arazoak ekarriko zituen etorkizunari begira. Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen zen zerbitzua ez zen nahikoa nagusi guztien beharrazinei erantzuna emateko eta, gainera, gizarte-laguntzaileek susmatzen zuten adineko batzuek ez zutela behar bezala jaten. Hiru urte pasa ostean, egoera areagotu egin da ekonomia-krisiaren ondorioz. "Programak helburu bikoitza du: alde batetik, langabeak ogibide batean trebatzea; eta bestetik, nagusiak apur bat hobeto elika daitezela", azaldu dute Alex Loustaunau Behargintzako gerenteak eta Amaia Diaz Prestakuntza eta Enplegu Sustapenerako arduradunak.

"Jendearekiko harremana da gehien gustatzen zaidana"

Eguerdiko ordu bata da eta Ariane, Jesus eta Jasone garaiz ailegatu dira Mariaren etxera. Txirrira jo eta apur bat itxaron behar izan dugu. Maria 86 urteko zamudioztarra da eta bakarrik bizi da. Hankako mina du eta horrek zailtasunak eragiten dizkio ibiltzeko orduan. Etxean beharren bat egiten badu ere, ez da kalera irteten beste pertsona batek laguntzen ez badio. Eta bazkaria ere ozta-ozta prestatzen du. "Alabak niri begira ditut beti, gabeziarik ez dezadan eduki. Baina lan egiten dute, eta zerbitzu hau ondo datorkigu guztioi".

Gaurko menua Mariaren gustukoa da: txanpinoi-krema, karioka eta goxua. Mariak denetarik jaten du eta ez du dieta berezirik egin behar. Normalean bazkaria

goxo dagoela dio, baina okela behin gogorra egon zela, "eta ez zegoen nork jango zuenik!". Barre egin dute. "Bai, bai; ez da berriro gertatuko!". Aurreko eguneko erretilua hartu eta furgonetara abiatu dira, banaketarekin jarraitzeko.

Ematen duten zerbitzuarekin oso pozik daudela diote. "Eurentzat ez ezik guretat ere onuragarria den lana egiten dugu", aipatu du Arianek. "Jendearekiko harremana da gehien gustatzen zaidana lan honetatik". Hala ere, programa ekainean amaituko da eta ez dakite jarraipenik izango duen. "Oso ideia ona da, eta behar beste publizitate eta laguntza edukiko balitu erabat arrakastatsua izango litzateke, zerbitzua behar duten pertsona asko daudelako gurean".

"Programak helburu bikoitza du: alde batetik, langabeak ogibide batean trebatzea; eta bestetik, nagusiak apur bat hobeto elika daitezela"

Behargintzaren eskutik hiru Auzolan antolatu dira, eta bazkaria etxera eramateko zerbitzuaren ardura Auzolan horietako batek hartu du. Langileen prestakuntzari dagokionez, programa abenduan jarri zen martxan eta ekainera arte iraungo du. Parte-hartzaileek Izarza-Fundación Peñascal Sondikako jatetxean jaso dute sukaldaritza arloko prestakuntza eta egunero banatzen dituzten menuak bertan ere prestatzen dituzte. Menuak jate-

txeko sukaldeburuaren agindupean egi-
ten dituzte. Zerbitzua maiatzean amaitu-
ko da eskaintzen, eta ikasle/langileek
prestakuntza osagarria jasoko dute or-
duan. "Helburua ez da soilik pertsona
horiek sei hilabetea kontratatzea; aukera
sozialaboral bat izatea nahi dugu eta, ildo
horretan, gizarteratzeko enpresak bide
egokia izan daitezke".

Mugimendua goiz-goizetik hasten da
jatetxeko sukaldean. Programako langile-
ek arreta handiz jarraitzen diete sukalde-
buruaren azalpenei, eta platerak arduraz
prestatzen dituzte.

Menuek lehenengo platera dute, bi-
garrena, postrea eta ogia. Menu oreka-
tuak dira, era askotakoak, eta nagusi ba-
koitzaren beharrianak eta dieta kontuan
hartuta egiten dituzte.

Motibazio handia

Sukaldean zortzi lagun dabilta lane-
an: 20 urtetik 40 urtera bitarteko bost
emakumezko eta hiru gizonezko, eta guz-
tiek oso konpromiso maila handia dute.
"Izan ere, ogibidea benetako egoera bate-
an ikasten dabilta eta, ondorioz, harre-
man zuzena dute zerbitzua ematen die-
ten pertsonekin. Motibazioa beste Auzo-
lanetan baino handiagoa da".

Bazkariak erretilu termikoetan sartzen
dira. Horien banaketa Txorierri osoan egi-
ten da eta horretarako gizarte-laguntzai-
leen laguntzaz prestatutako ibilbide bati
jarraitzen zaio. Banaketa goizeko 12etan
hasten da eta normalean eguerdiko
13:30etarako dute bukatuta. Jasone Be-



*"Menuek lehenengo
platera dute, bigarrena,
postrea eta ogia; eta
hiru euro balio dute"*

hargintzako orientatzaileak lanari buruz
dituzten kezak argitzeaz gainera, bana-
ketarekin lagundu ere egiten die, leku
batetik bestera furgonetaz eramanez.

Programak 65 urtetik gorako 20 txo-
rierritarri ematen die zerbitzua. Lehenen-
go banaketa abenduaren 16an izan zen
eta azkena maiatzaren 31n egingo da.
"Adinetik aparte, besteak beste baldintza
hauek bete behar dira zerbitzuaz baliatze-

ko: mugikortasun-arazoak edo arazo psi-
kikoak edukitzea, mendeko pertsona iza-
tea edo bakarrik bizi izatea. Hala ere, 65
urte baino gutxiago eduki arren, lagun
bat egoera horietako batean badago,
horrek ere badu zerbitzuan sartzeko
aukera".

Nagusiek hiru euro ordaintzen dute
bazkari bakoitzeko, eta zerbitzuak kostat-
zen duen gainontzekoa Auzolan progra-
ma eta Behargintzaren bitartez finantza-
tzen da. Lehen esan bezala, programa
pilotua da eta hori bukatu ostean azertu-
ko dute arduradunek ea bazitekeen zer-
bitzua etorkizunean ematen jarraitzea.
"Gizarte-ikuspuntu batetik programa
bideragarria da, baina beste aspektu ba-
tzuk ere hartu behar dira kontuan, ekono-
mikoa adibidez".





“Zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta handiagoa da jakin-mina”

t: Itxaso Marina / a: IZAE

Noren ideia izan zen taldea sortzea?

Udalak antolatutako ikastaro batean hartu genuen parte, eta irakasleak taldea sortzera bultzatu gintuen. Irakaslea Derioko Argazki Taldeko kidea da. Ideia ona iruditu zitzaigun, eta hemen gaude!

Zenbat kide zarete?

Hamaika lagun. Baina momentu honetan beste ikastaro bat egiten gabilta eta han ere jende berria dago. Haiek elkartearen sartzea espero dugu.

Zein da elkartearen filosofia?

Argazkigintzarako zaletasunak batzen gaitu eta jarduera honetaz gozatzea da gure helburua. Hori da gure zaletasuna, eta bakoitzak ahal duen neurrian edo bere denbora librearen arabera hartzen

IZAE | Zamudioko Argazki Taldea

IZAE oso talde gaztea da. Bienvenido Ferreiro presidenteak azaldu digunez, elkartearen iaz sortu zen, argazki ikastaro batzuen ondorioz. Taldekideak lehen urratsak ari dira egiten argazkilaritza munduan.

du parte taldean. Badakizue, denok dugu geure bizitza: familia, lana...

Ekitaldirik antolatu duzue?

Hasi baino ez gara egin. Hala ere, Lagatzu euskara elkarteak ekainean antolatutako Euskal Jaian hartu genuen parte, eta “argazki-erreportaje xume bat” egin genien, elkarteak ekitaldiaren oroigarri bat izan zezan. Bestalde, joan den urtean argazki erakusketa bat antolatu genuen Zamudiotarren, jendearen ikastaroetan

egindako lana ezagutarazteko.

Zein motatako ezaupide jaso dituzue ikastaroetan?

Hiru ikastaro egin ditugu. Lehenengoa, argazki-makinaren erabilera izan dugu hizpide; eta bigarren, Photoshop programa. Orain egiten gabiltzan ikastaroan argazki-makinaren erabilera hartu dugu berriro. Laster beste ikastaro bat egingo dugu eta han Photoshop programan sakonduko dugu.

Ikusten dugunez, argazki digitala lantzen duzue...

Bai. Analogikoa baino errazagoa da eta aukera gehiago ematen ditu. Gainera, argazkia txarto ateratzen bada, berriro uki daiteke.

Guztiak zarete afizionatuak, ala profesionalik badago zuen artean?

Irakaslea taldeko kide egin da eta, hura izan ezik, beste guztiok gara zerotik hasitakoak. Beno, argazkiak mundu guztiak egiten ditu; edo saiatzzen da egiten. Argazkilaritzaren jakin-mina genuen eta ikastaroak baliagarriak izan dira jakingura hori asetzeko. Argazki hobeak egiten ikasi nahi genuen, besterik ez.

Eta orain erabat liluratuta zabiltzate...

Izan ere, ikastaroak itzelak izan dira. Argazki-kamerak hamaika aukera dituela ikusi dugu, eta mundu horri buruz zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta handiagoa da gure jakin-mina.

Txorierrin leku ederrak ditugu argazkiak egiteko.

Teknologia Parkea oso deigarria da, nire ustez. Argazkiak eraikinei ateratzea

"Gure helburua argazkigintzaz gozatzea da, besterik ez"

"Teknologia Parkea oso leku deigarria da argazkiak egiteko: baserriak eraikin modernoekin uztartzen dira"

gustatzen zait eta aukera zabala dut han, baserriak eta eraikin modernoak elkarrekin uztartuta daudelako. Aireportua ere leku aproposa da. Eraikina gogokoa dut eta hegazkinak lurreratzen direnean ikustea gustatzen zait. Hala ere, oraindik ez

dut leku onik topatu argazkiak ateratzeko. Horretan nabil.

Sondikan eta Derion ere Argazki Elkarte dago. Harremanik duzue haiekin?

Derioko elkarteak Argazki Txapelketa antolatu zuen eta gu haiekin egoteko aukera izan genuen, txapelketa zelan antolatzen den ikusten. Baten batek komentatu zuen zerbait antolatu behar genukeela hiru taldeen artean. Gu prest gaude.

Proiekturik duzue esku artean?

Taldea sortu berria da eta momentu honetan ikasten jarraitzeari ematen diogu lehentasuna. Baina, beno, aurtien beste erakusketa bat egingo dugu ikastaroen haritik. Interneten topagune birtual bat sortu dugu eta bertan IZAEko kideok geure argazkiak eskegi ditzakegu, eta beste kideek egin dituzten lanak eskuratu. Plataforma horrek aukera handiak ematen dizkigu talde-lana hobeto kudeatzeko. Ah, norbaitek gurekin jarri nahi badu harremanetan, helbide elektroniko honen bidez egin dezake: izae2009@hotmail.es.

IZAE
IKUSKERIA ZUZENOKO ARGAZKI ELKARTEA
Hondakoa Kultur Etxea
Hondakoa Kalea, 1 (Hondakoa auzoa)
Telefonoa: 94.403.04.13

"TRAGEDIA"
JOSU LARREA, KONTAKUAK eta irudiak: Mikel Lasa
[guztira irudiak: 100 irudi] [2. argazki liburua]
JOSU LARREA, KONTAKUAK
[Hondakoa Kultur Etxea, 2010. urteko 1. argazki liburua]

ANTZERKIA
Mikel Lasa, 1. argazki liburua
"TRAGEDIA"
Kontakua, irudiak eta argazkiak
[2. argazki liburua]
17. urte: 1. argazki liburua
18. urte: 2. argazki liburua

ZINEA
Mikel Lasa, 2. argazki liburua
"TRAGEDIA: LA FERIA DELA"
17. urte: 1. argazki liburua
18. urte: 2. argazki liburua
Kontakua, irudiak eta argazkiak
[2. argazki liburua]
17. urte: 1. argazki liburua
18. urte: 2. argazki liburua

Asua, ur-erroten bailara (I)

Zertzelada batzuk

Sondikako erroten ganean

Alberto Díez Sáizek *Ibai-errotak, Asuako bailaran* liburua idatzi dau (Eusko Ikaskuntza, 1997) eta bertan 36 errota batu ditu. Erroten kokalekua Sondikan, Erandion, Loiun, Derion, Zamudion eta Lezaman zehaztu dau. Díezen beharreen oinarrituta, errepasoa emon deutsegu Sondikako eraikuntzei; gainontzekoak, beste baterako.

Egileak azaldu dauan legez, bost ur-errota egon dira Sondikan; Susunaga, Sangroniz, Urkiaga, Asua-Urazandi eta Axpulueta-erdikoa. Era berean, Artxandako haize-errotea be aitatu egiten dau liburuan. Zamudio leinukoek Butron etxe-koak garaitu ebezan Altamirako batailan, 1275. urtean. Ondorioz, Fortún Sánchez de Zamudiok Susunaga Torretxea altzeta-ko agindu eban eta, halan, Susunagako lehenengo Jaun bihurtu zan. Errotea be XIX. mendearen azken laurenean eregi zan, ziur asko; halanda be, eraikuntzaren ganean dagoan lehenengo dokumentu idatzia 1565. urtekoa da.

Susunaga Torretxea Artxanda mendian egoan, San Roke ermitatik hur, eta handik Zamudioko bailara osoa ikusten zan. Hainbat dokumentu ikertu ostean, Torretxeak errota bi eta burdinola bi ebazala atera dau ondorio Díezek: errota bat

*“Bost ur-errota egon dira
Sondikan; Susunaga,
Sangroniz, Urkiaga,
Asua-Urazandi eta
Axpulueta-erdikoa”*

eta burdinola bat, Susunagan egozan, eta besteak Urkiaga auzoan. Torretxea 1853. urtean erre zan, haren jaubea Vargaseko markesa zala.

Urkiagako errotaren lehenengo datu idatziak be 1565. urteko dokumentu baten azaldu dira. Díezek etxe-errotaren gane-ko deskribapena jaso dau liburuan. “Errota ondoan Urkiaga baserria dago eta han 20 kiloko “sotil” burdina-zati bat da-

be, baita atxinako burdinolako gabi bat be [...]”.

“Puñera”, pisuen ordez

Sangronizeko Martin Ximenez Uribe-ko Merindadeko foru-alkatea izan zan 1235. urtean. Sangronizeko errotaren gane-ko lehenengo datu idatziak XVI. mendekoak izan arren, errotea eta izen bereko torretxea harek eregi ebazala uste dau Díezek, “semea Sangroniz Torretxe eta Sangroniz eta Jauregiko erroten Jauna izan zalako”.

José María Lopategi eta Rufina Gerri-kaetxebarria senar-emazteak errotan aritu ziran 1945. urtetik 1971. urtera bitartean. Jardunean egon zan azken urteotan, errotak lau ehoharri ebazan. Horreetako bat, 1,40 metroko diametroa ebana, Jata-menditik ekarri eben eta Ignazio Beitia Larrauriko harginak landu eban. Harria



Burdinolako gabia, Urkiaga baserrian



Urina biltzeko siloa



Gatikako Victoriano Garmendiak konpondu eban, zeina hargina eta arotz-ebanista ona izateaz ganera, bibolin-jolea eta bertsozalea be bazan. Harria 4.000 pezeta ordainduta erosi zan 1950. urtean.

Asuako Torretxea Asuako Juan Sánchezek agindu eban altzetako. Ha Alfonso XI eta Pedro I "Krudela"ren garaikidea izan zan eta horregaitik uste da torretxea eta Asua-Urazandiko errota-burdinola XIV. mendearen bigarren erdialdean eregi zirala. Liburuaren egileak kontsultatutako dokumentuetan informazio zabala topau dau errotaren azpiegituren ganean.

Xpulueta-erdikoa errotea beste izen batzukaz izan da ezaguna bere jardueran zehar: Asukoerrota, Elorrieta-bekoa, Tabakoerrota-bekoa eta Bekoerrota. Maria de Gorocica hango errotaria izan zan eta liburuaren egileak azaldu dauan bezala, harek “ez eban pisurik erabilten; “puñera” moduan ezaguna zan neurri-unidadea baino”. Erroteak 1970. urtearen inguruan gelditu eban bere jarduerrea, Jose M^a Gastañaga eta Josefa Goiri hango errotariak zirala.

*“Axpulueta-erdikoa
beste izen batzukaz
izan da ezaguna:
Asukoerrota,
Elorrieta-bekoa...”*

[illegible]

White Hyacinth Perennials
 easy care Full sun to shade
 100% satisfaction or 100% refund
 "Value" guaranteed or 100% refund

1-800-888-8888
 800-888-8888
 100% satisfaction or 100% refund

[illegible]

 **GARAIOLTZA, S.A.**
ENDOZKO-GERAKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK
LEHEN MAILAKO GERAKUNTZAK; LEHUTE HANDIAK;
ORDUNTZEKO ERREKATASIN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

*Garaiolekuaren, 778 (Leizaola)
Leizama (Bizkaia)*

Zer dela eta salmenta zuzena?

Gure baserriak txikiak dira eta ez dute zereginik gaurko merkatu egiturari, eta, egitura horretan sartuta ere, ezin diote eutsi kanpotik datorren konpetentzia desleialari. Beraz, salmenta zuzena bide bat da beste batzuen artean. Izan ere, guk herriko denda txikiak eta betiko plazako azokak ere bultzatu gura ditugu.

Zertan datza salmenta zuzena?

Guk geuk, diru baten truke, astero-astero saski bete ortuari eramaten diegu etxeraino bezeroei sasoiko produktuekin. Formula honek gero eta arrakasta handiagoa du gure artean nahiz beste herrialde askotan. Gainera, bezeroak baserrira ere etor daitezke erostera, ikustera eta gain-begiratzera. Kontuan hartu behar dugu kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioa hobea dela bitartekariak kentzearen ondorioz. Gure produktua ez da garestiagoa; gainera, atzera begirata ikusiko dugu duela 30 urte etxeko gastuen %30 inguru elikatzeko bazen, gaur egun horren erdira ez dela heltzen, hau da, aisian baino gutxiago gastatzen dugula, baina, beti ere, lurraren kaltean.

Zer abantailak dauzka?

Bezeroei kalitate handiko produktua eskaintzen diegu eta gastatzen duten dirua produktuari dagokiona da, ez nekazaritzako elikagaien industriari eta bitartekariak daramatenari. Izan ere, merkatu globalean produktu askok 2.500etik 4.000 km arteko bidaia egiten dute joan-etorrietan. Beraz, biltegiatzen, ontziratzen eta garraiatzen produktuen salmenta prezioaren % 60tik gora joaten da, horrek dakarren kutsadura kontuan hartu barik.

Eta gizarteari begira?

Herri batek sektore guztiak eduki behar ditu garatuta eta guk elikadura-subirarnotasuna ematen dugu. Maila hurbilagoan herriko ekonomia bultzatzen dugu eta ingurumena ere jagoten da, besteak beste, baserri ingurua zainduz, ekosistema txikiak eta orekatuak sortuz... Era berean,

Baserritik etxera

Antzina Txorierriko baserritarrek Bilbora joaten ziren ortuariak saltzera. Industrializazioaren ondorioz, ordea, bizimodu hori gainbehera joan zen. Hala ere, badira bizimodu horri galdutako protagonismoa itzuli gura dietenak. Guk euretariko bi elkarrizketatu ditugu: Laurentzi Hormaetxea eta Jose Antonio Lekue.



landareen eta hazien erabilera baserritarren eta gizartearen esku uzten dugu eta ez multinazionalen esku. Horrek guztiak aleko garrantzia dauka ingurumenean, zeren produktuak eta ongarriak garraiatuz, plastikoz bilduz, kameratan gordez

eta produktu kimikoak erabiliz energia izugarria xahutzen da eta ingurumena kalitetu.

Osasunean ere eragina izango du...

Zelan ez. Esandakoaren ildotik guk 50 km-ko muga jartzen diegu geure produk-





*“Merkatu globalean,
produktuaren salmenta
prezioaren %60tik gora
joaten da hura
biltegitratzen, ontziratzen
eta garraiatzen”*

tuei, kutsadura erabat minimizatuz eta enbalajea ere desagerraraziz. Denok daki-gu horrek guztiak nolako eragina duen eguratsean eta osasunean. Bestalde, gure produktuen kalitatea bermatuta dago teknika onak erabiltzen ditugulako, lurraren erritmoan ekoizten dugulako eta sorozan ondo helduta dagoelako, eta horregatik zapoetsuagoak ere badira. Gainera, sasoiari sasoiokoa jatea onuragarria da osasunarentzat.

Zelan dago Txorierriko nekazaritza?

Bilboko ortua izatetik Bilboko industri-gunea izatera pasa gara denbora gutxian, eta baserriko lurra industriari eta urbanizazioetara joan dira. Gainerako lurraldeetan ere egoera bertsua da; izan ere, lehenengo sektorean diharduen langileria asko murriztu da, produktua kostuaren azpitik ordaintzen da eta ez da kontuan hartzen paisaiari, kulturari, osasunari eta ingurumenari egiten diegun ekarpena. Edo-

*“Elikadura-subiranotasuna
ematen dugu, herriko
ekonomia bultzatzen dugu
eta ingurumena ere
jagoten dugu baserri
ingurua zainduz”*

zelan ere, Euskal Herrian nekazaritza gu-neak integratuta daude herrietan, eta horrek salmenta eta kontsumitzaileekiko harreman zuzena ahalbidetzen ditu.

Zer eskatzen duzue?

Administrazioari kontuan har gaitzala hirigintza planetan, eta planeamendu horietan gorde dezala lurra baserriarentzat, bestela lur emankor barik geldituko gara. Bestalde, nekazaritzako industria bultzatu beharrean, lagun dezatela baserria, bultza eta susta ditzatela gune txikiak, zeren baserriak herrien eta hirien arteko oreka mantentzen laguntzen baitu, osterantzean herriak hustu eta hiriak gainpopulatu egiten baitira.

Kontsumitzaileak, azkenik, produktua-ren kalitatea eta zuzeneko kontrola ikusi eta baloratu behar ditu. Amaitzeko, guk geuk bakarrik ezin dugu berreskurapen hori lortu, administrazioaren eta kontsumitzaileen konplizitatea eta laguntza behar dugu.



t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Nature zientzia aldizkaria 1869tik argitaratzen da Londresen. Prestigio handiko aldizkaria da, eta publiko nagusia zientzialariak eta ikertzaileak ditu. Hala ere, gai sakonak landu arren, edonorentzat ulergarriak diren artikuluak ere idazten dituzte. Ikerketa eta aurkikuntza inportante asko aldizkari honetan agertzen dira lehenengo aldiz, eta edonorentzat ohore handia da bere artikulu bat bertan argitaratzea.

Urtearen lehenengo alean, ikerlariak eta politikoei galdetu diete 10 urte barru, bakoitzari dagokion arloan, zeintzuk izango diren jorratuko diren gai nagusiak. Emandako erantzun askok zerikusia izan dute osasunarekin, ikuspegi ezberdinetatik izan bada ere. Ez da harritzekoa, inkesten arabera, zientzia eta teknologiarekin lotutako gaietan ere osasuna delako gizartearen interes gehien sortzen duena. Baina zer da osasun mailan adituek espero dutena? Hori atal bitan aztertuko dugu.

Zu zara nire bizilekua!

Gure gorputza izaki askoren bizilekua da. Azalean, ahoan, baginan eta hestetan hainbat mikrobio bizi arren, ez dugu “fauna” hori oso ondo ezagutzen. Abian jarri dira zenbait proiektu “garen ekosistema hauek” aztertzeko, eta gure osasunaren duten eragina ulertzeko: Zein da antibiotikoei duten eragina gurekin sinbiosian bizi diren bakterioetan? Zelan kontrolatzen du gorputzak komunitate hauen osaketa? Zein da espezie ezberdinen arteko elkarrizketa?

“ADNa”, medikuntza-ikerketa askoren ardatza

Azken urteotan asko handitu dira




Osasuna, gizarte eta zientzialarien kezka nagusia

ADNa manipulatzeko abiadura eta ziurtasuna. Alde batetik, hobeto ezagutzen dugu ADNa; eta bestetik, gero eta errazagoa da edozein izakiren informazio genetikoa ezagutzea. Bide honek medikuntza pertsonalizatuaren aukera zabalduko du. Horrela, pertsona batek bizitzan zehar eduki zitzakeen gaixotasunak detektatu eta neurtu ondoren, horien aurrezaintza ahalbidetuko da. Eta gainera, sendabideen aurrean gorputzak zelan erantzungo duen ere aurreikusi ahal izango dugu, bakoitzarentzat egokienak direnak aukeratzuz.

Beste alde batetik, adituek uste dute,

ADNa manipulatzeko gaitasunari esker hauek garatzeko aukera egongo dela: ahoz hartzen diren txertoak, zelula ama programagarriak eta “bakterio robotak”; hau da, guk aldeztu aurretik programatutako lan batzuk egiteko gai direnak: tumore bat detektatu eta eraso, adibidez.

Azkenik, buruko gaixotasunetan ere jatorri genetikoko eragina duela gero eta garbiago dago. Arrisku-faktoreak diren geneak (ADNaren informazio-unitateak) parte hartzen duten prozesuak ulertzen ditugunean, aurrerapauso handia eman gogo dugu gaixotasun horien aurreikuspenetan eta tratamenduan.



Eskufonoa Txorierrin, ez mugikorra!

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on, Txori!

–**Úrte**barri, Luki!

–Nik halako potrokolorik ez dot ikasi,

Txori!

–Protokoloa esaten da Luki!

–Ez, neska, potrokoloa da.

–Bai zera! Hi haz izatekoa qizona!

-Ba, erdaldun batek potrokoloaren ordez portukuloa be esaten dau.

–**Hoba** whiskia barik betiko kafea hartu bahuian Luki.

–Baleiteke, baina ez esan andreari eta seme-alabei gero!

–Ez, Luki, gure pekatuak bion artean **garbitakoak** dira.

–Ba, Txori, letretan doktorea –eta gorputzez dotorea!- zara, baina egia dintsut, erdaldunek handiagoak be esaten **deuriez:** behin: *Un pueblo que se llama De Río* non dan -batek. Nik, *Será Derío* –erantzun neutsan.

–Euskaldun askok be Luki, Dério eta Zamúdio esaten dabe, baina Derío, Zamudío *-Derixo, Zamudixo-* esan behar da ze, goranzko diptongoak izankeran, *i* bokala eta *o* banatu egiten dira Txorierrin. Holantxe: *De-rí-o; Za-mu-dí-o.*

–Aiko barrabana! Hori be jakin gure Txorik!

–Heuk be hik ekonomia ikasi huan
Lukj, ez?

–Bai, atzerriratuta egon nintzanean,
baina hango tituluak ez dau balio hemen.

–Edozelan be, zuhurra bahaz hi Luki.

–Lukia beti zuhurra, oilo lapurretara-
ko baino ez bada be.

–Ez, ez, zu-
hurra, akordaldi
itzelak eukiten
dituana.

–Hori bai
gero! Oraingo telefo-
no mugikorrari be nik
ESKUFONOA esango
neuskio ze, tele +
fona bada betikoa; hau, esku +
fona. Polita ez?

–Bai, ona Luki!

–Badakizu Txori zer esan eustan Martin Orbe abadeak honeek trapazeria modernoak dirala-eta? Zera, abade lagun batek, asko **kostata**, ordenagailutik mezuak hartzen ikasi dauela, baina, ezin **joño** bialdu mezuok!; hartu bai, bialdu ez; hori ez dauela ikasi.

–Harek esateko ez dozu hori handia.


–Berak, gero, zelan egin barre,
Txori!

–Aqur!

-Ezin etorri

banaz, eskufonoz deituko deutsut.

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa





aisia restaurant

11111

Farmacia del Tirolo - Via Marmata
 38040 - 38040
 T. 0461 4217000
www.farmaciadelirolo.com

BASERHI menu

1. *Carne di manzo con patate, 2. Polpetta di agnello con
 salsa, 3. Polpetta di agnello con salsa, 4. Polpetta di agnello con salsa*

Offerta di *Carne di manzo con patate* con *Carne di manzo* e *Carne di manzo*

29 €

Carne di manzo con patate
 100g 0,02€
 (per 100g 0,02€)



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOTERAPIA

Nori dago zuzenduta Lezaman antolatutako txistu ikastaroa?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:
 –Telefonoz: 94 452 34 47
 –e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna: Bost urte
Irabazlea: Ainara Elorrieta

Bakoren bazterra

Atzoko eta gaurko mahatsak

Iñaki Suárez, sumillerra

Gaur egun, esku artean dugun informazio guztiarekin, hitz egiten digutenean mahats motei buruz, batzuen aditza izango dugu gutako askok, ziur aski, eta baliteke inoiz ere dastatu izana. Hala gerta liteke, esaterako, mota hauekin: Riesling, Cabernet sauvignon, Merlot, Shiraz, Sauvignon blanc, Pinot noir, Gewurztraminer... Kanpo-koak dira guztiak, Frantziatik ekarriak gehienak, eta gaur-gaurkoz ardo globalaren nortasunaren eta glamourraren ordezkari dira.

Ez naiz ni izango zalantzan jarriko di-tuena jatorri horien (eta dauden beste askoren) balio enologikoa eta magia, baina uste dut bidegabekeria litzatekeela ez aitorzea halakoak landatzeak—dela eteki-nagatik, marketingagatik edo bereiztea-gatik (nahiz eta hori lehenago gertatu, ezen gaur egun hainbeste globalizatu dira, non ia-ia mundu osoan hazten di-ren)—beste mota batzuk utzi zituela albo



batera edo ordezkatu; beste mota batzuk "autoktonoagoak" zirenak, ardotze proze-sua ondo eginik ardo bikainak eman ditzaketenak, eta, gainera, herri askoren paisaia- eta kultura-iru-diaren adierazgarri izan daitezkeenak.

Mahats horietako asko hasi dira berriro ere lan-datzen eta ardo egiten, arrakasta handiz kasu as-kotan, eta horregatik, Ai-korlagunak, dastatzeko gonbita egin nahi nizueke. Badakizue foro honetan ez dudala aipatzen ardo markarik (hala egingo dut AIKOR! laguntzen hasten direnean), baina bai, kasu honetan bezala, ma-hatsak; atzoko eta gaurko mahatsak, ziur aski gozatzeko aukera emango dizuetenak. Hona hemen haietako bat-zuk eta haien jatorri eremua: **Juan Gar-cia** (Arribes del Duero. Salamanca), **Rufe-te** (León), Maturana (Errioxa), **Prieto Picu-do** (León), **Zalema** (Andaluzia), **Vijariego zuria** eta **beltza** (Kanariak), **Vidadillo** (Aragoi), **Verdil** (Valentzia), **Verde Agudi-llo** (Palencia), **Trepas** (Katalunia), **Treixa-dura** (Galizia), **Romé beltza** (Málaga, Andaluzia), **Picapoll** (Katalunia eta Lan-guedoc), **Parraleta** (Aragoi), **Pardina** (Ex-tremadura) etab... On egin!

Etxeko sukaldaritza

Azalorea bexamel bereziagaz

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (lau lagunentzat):

–Kilo eta erdiko azalorea (garbitua eta txikitua)

–Ura, gatza eta limoi baten zukua

Bexamela egiteko:

–100 g gurin

–Koilarakada urun bi

–Litro erdi esne



–100 g pernil (txikitua)

–100 g intxaur (txikitua)

Presteteko erea:


Azalorea ur ugaritan egosiko dogu 20 minutuan, gatza eta limoi-zukuagaz.

Bexamela: Gurina sartagin baten urtuko dogu su ez-tian. Intxaurrak eta pernila gehitu eta minutu baten prijiduko doguz. Uruna bota, eragin eta minu-tu erdian prijiduko dogu. Esnea gehitu eta 10 minututan izango dogu egosten. Labea 200 gradutan berotuko dogu. Azaloreari ura kenduko deusagu eta labarako erretilu baten ipiniko dogu. Bexamela gainetik botako dogu, eta, gustukoa bada, gaztai arraspau apur bat be botako dogu. Azalorea labara sartuko dogu, bexamela apur bat gorri-tu arte.



Ercoreca
supermerkatuak

Flikadura adituak



Gomendioak

Amagoia Gezurga

LITERATURA: NAGUSIAK

- Ezer gabe hobe. I Borda
- Denbora enaren hegaletan. K. Igar-tua
- Handitzen, handitzen. A Diez de Monastrioguren
- Manuel Iradier: Afrikako arimaren esploratzailea. R. Olasagasti

LITERATURA: HAUR ETA GAZTEAK

- Asterix eta Obelixen urtebetetzea. Gosciny
- Ryskiren ipuin politenak. Iturralde
- Tinta-bihotz. C. Funke
- Rita eta hilobi lapurrak. M. Valverde

MUSIKA

- Txalaparta. J. M. Beltran
- Payola. Berri Txarrak
- The Beatles eta ni. J. C. Irizar (pop)
- Mugak gaindituz. Kriston (Rock)
- Herriaren oihua. Vendetta (Hard rock)

Sudokua

5					4	2		
	7	3	2					4
	2					6		9
					5			2
7		1			6		9	5
6	5			3		8		
	6			9			5	
8		9		4			3	6
4						9		

1	2	3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31	32	33	34	35	36
37	38	39	40	41	42	43	44	45
46	47	48	49	50	51	52	53	54
55	56	57	58	59	60	61	62	63
64	65	66	67	68	69	70	71	72



**Qure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...malla handiko teknologiarekin.

ITP Taldean atxiegia handia egiten dugu. Berkele alorrean hegazkin-motor
magetromaguetan, eta Almerian eta CV² garajea garajeak dituzten dizekintza
zaintza zentroak, behar diren teknologian gurea erabiltzea erabaki genuen. Gure dizekintza
hazteko talde-lana egiten dugu. ITP Inmagrillo, Inguanien Alorreko Taldean
Integratua jaso duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara.
Ingurumeneko erantzukizunari erantzuteko, fitxak eta botak gure enpresa
hazteko behar diren adina dira.



www.itp.es



C. B. I. P. O.
Industria de Turbo Propulsiones, S.A.

TXORIERRIKO BERBALAGUN



Euskalduna zara?

Euskaldunak: Egin gure elkar-
lana! Laguntzeko gurek!
Harentzako zure aukerak

**Euskara ikasten
aritu(zu) zara?**

Baduzu eragun berria gure? **Ez!**
Harentzako zure aukerak



ANTOLATZULEAK:



TXORIERRIKO ELKAR-
TOTOAN
ELKARTEEN FUNDATZIOA

BAIEZULEAK:



BERBA ELKARTEA
Euskararen Erakunde Nazionala



TXORIERRIKO
BERBALAGUN

LAGUNTZULEAK:



TXORIERRIKO
BERBALAGUN



TXORIERRIKO
BERBALAGUN